

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

NORTASUN-EREMUA

Azpi-arloa. Jaiak

Lehiaketa askeko diru-laguntzen deialdia, 2025. urtean jai programak egiteko

BDNS (Identif.): 834808.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/834808>).

Laudioko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren 2025ko maiatzaren 23 eguneko erabakiaren bidez hartutako ebazpenaren laburpena. Erabaki horren bidez, 2025. urtean jaietako programak egiteko lehiaketa askeko diru-laguntzen deialdia onartu da.

Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen, Diru-laguntzen Lege Orokorren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin bat, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>): eta Audio Udal honen web atarian (www.laudio.eus).

Lehenengoa. Onuradunak

Deialdi honen bidez, subjektu indibidualek edo elkarteek sustatutako jaietako-programak arautzen dira, baldin eta 2025ean gure udalerrian jaietako programak sustatzen badituzte.

Bigarrena. Xedea

Gure udalerrian 2025ean jaietako programak bideratzeko diru-laguntzak ematea.

Hirugarrena. Oinarri arautzailea

Laudioko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko maiatzaren 23an hartutako erabakiaren bidez onartua.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdi honetarako zuzkidura 42.000,00 eurokoa izango da.

Gastua egotziko zaie Audio Udaleko 2025eko aurrekontuko udal-aurrekontuko "Sanroketarako dirulaguntzak" aplikazioan (0403 3381 48119).

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Eskabideak hogeiei egun balioduneko epean aurkeztu beharko dira, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eskaera egiteko eskabide normalizatuan, egoitza elektronikoaren bidez, pertsona juridikoen kasuan, eta egoitza elektronikoaren bidez edo Udalaren Herriarrentzako Arreta Zerbitzuaren bidez, pertsona fisikoen kasuan, edo Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean zehaztutako moduetan.

Laudio, 2025eko maiatzaren 23a

Alkate-udalburua

AINIZE GASTAKA MARTINEZ